

Adei Enparantza Agirre

D maila • **Aipamena**

Adei Enparantza Agirre naiz eta 2009ko apirilaren 30ean jaio nintzen. Beasaingo Loinazpe institutoan ikasten dut, eta aurten Dbh 1 egiten ari naiz. Nire zaletasunak atletismoa eta marraztea dira. Konturatu nintzen, beldur asko eduki arren, nolabait aurre egin behar zaiela, eta horren ondorioz, ipuin honetarako ideia sortu zitzaidan, BELDURRAK ATZEAN UTZITA. Espero dut zuen gustokoa izango dela.



BELDURRAK ATZEAN UTZITA

Bazen behin hiri handi bat, baina kaleak hutsik egoten ziren; izan ere, herritarrak ziren horren bakartiak eta isilak non inork ez zuen bere artean hitz egiten. Hiri hartan milaka auzo zeuden, eta inor ez zen besteren auzoetara gerturatu ere egiten.

Herritarrek ez zuten elkar ezagutzen, eta beti isiltasunean edo ezkutuan egoten ziren. Auzo batekoek ez zioten inoiz elkarri begiratu ere egiten, pentsatzen zuten beraien artean begiratzuz gero itsu geldituko zirela betirako. Beste auzo batekoek pentsatzen zuten beste auzokoekin hitz egiten bazuten, mingaina txikituko zitzaizela. Txakurrek ere ez zuten zaunkarik egiten zerbait txarra gertatuko zitzaizela pentsatzen baitzuten. Hiriko kaleak hutsik eta goibel egoten ziren, kalera ateratzeko beldurrez. Hiriko denda gehienak itxi beharra izan zuten, jendearen beldurraren ondorioz. Hiri hartan ez zegoen autorik istripu bat gertatuko ote zitzaaien beldurrez. Hiriko umeak beraien artean jolastu beharrean etxean egoten ziren zigortuko zituzten beldurrez. Dena zen oso bakartia eta tristea.

Behin, hiriko auzo batera gizon gazte bat iritsi zen, laranja koloreko kapela batekin buruan, jaka berde bat, marrazkiez betetako galtzerdiekin eta koloretako bolatxoekin egindako eskumuturreko batekin ezkerreko eskuan. Baina hiri hartako inor ez zen konturatu, nola bada, ez ziren etxetik ateratzen eta ez zuten beraien artean hitz egiten.

Hurrengo eguna segituan heldu zen, eta gizon hura kalera atera zenean harrituta gelditu zen ez zegoelako inor ere. Gizonari ez zion inongo beldurrik eman inor ez egoteak eta aurrera jarraitu zuen, baina hiri hartako leihotetan jendea ikusten zuen beldurrez jota. Eta zerbait egin beharra zuela bururatu zitzaion.

Egun batean gizonak zerrenda bat egin zuen beldurra ematen zien gauzekin, eta auzoko plazaren erdian jarri zuen, hiriko jendeak ikusi ahal izateko. Bertan bere beldurrei aurre egiten hasteko eskatzen zien. Zerrendako lehena armiarmak ziren eta gizonak beldur haiei guztiei aurre egingo ziela erabaki zuen, banan-banan. Egunero joaten zen plaza erdira eta zerrendan

PROSA

jarri zuen oztopo haiek gainditzen zituela erakusten zuen, baina, egun batean ez zen bera bakarrik azaldu plazara, oraingoan emakume bat ere joan zen beldurra ematen zioten gauzei aurre egitera. Eskuan zerrenda bat zuen eta eguna bertan pasatu zuen bere beldurrei aurka egiten. Hurrengo egunean, beste hainbat herritar ere azaldu ziren, bakoitza bere zerrendarekin, eta ondorengoan gero eta gehiago azaldu ziren, plaza hartara gerturatzen ziren guztiek kolorezko bolatxoekin egindako eskumuturreko bat eramaten zuten eskuan. Auzo hartako pertsona guztiek bat eraman zuten arte, orduan, auzoko kaleak pertsonen betetzerik ikusi ziren, jendeak beldurrak atzean utzi baitzituen.

Baina hirian gainontzeko auzoek berdin jarraitzen zuten, goibel eta ilun.

Beste egun batean, gizon gaztea, hiriko beste auzo batera gerturatu zen, auzoaren erdialdean jarri eta bere beldurrak atzean uzten hasi zen berriro ere. Egunero auzo desberdin batera gerturatzen zen eta behin eta berriz bere beldurrak gainditzen saiatzen zen, gero eta jende gehiago gerturatzen zitzaion.

Horrela, poliki-poliki, egunero gainontzekoei beraien beldurrei aurre egiten laguntzen zien. Jendeak etxean egon beharrean kalera ateratzen zen korrika egitera, kirola egitera, besteekin hitz egitera eta elkarri begiratzen, orain arte egiten ez zutena.

Herri ilun hura argiz betetzen hasi zen, eta hiriko jendea elkar ezagutzen, dendak berriro hasi ziren irekitzen eta herritarren beldurrak desagertzen jarraitu zuten. Hiriko gehienek zeramatzen koloretako bolatxoekin egindako eskumuturrekoa, eta argi zegoen gazte hari esker hiria berriro pozez betetzen ari zela. Zenbait eta alaitasun gehiago orduan eta beldur gutxiago, gero eta giro hobea zegoela konturatu ziren.

Norbaitek esan zuen plazaren erdira etortzen zen gizonari eskertu beharko lioketela, baina inork ez zekien zein auzotan bizi zen. Parkea zuen auzoan bizi ote zen esan zuen baten batek, baina bertara iritsi zirenean koloretako bolatxoekin arrasto bat besterik ez zuten aurkitu, gaztea, ordea, inondik ere ez zuten topatu. Etxea guztiz hutsik zegoen. Bazirudien bertan ez zela inor bizi izan.

Bitartean, gizon gaztea handik urrun zihoan poz-pozik, buruan txapel laranja, marrazkiz betetako galtzerdiekin eta ezkerreko eskuan koloretako bolatxoekin egindako eskumuturrekoa jantzita. Beldurrei aurre egiteko prest.

BILBARI